



BIDEZKO BANAKETA

Osagaiak:

- *Elikagaiak denontzat* posterra.
- Koloretako arkatzak, talde bakoitzeko lau (gorria, urdina, horia eta orlegia).
- Lan-fitxaren fotokopia bana talde bakoitzarentzat; ahal izanez gero, A3 neurrian.

Aurretiazko oharra:

1., 2. eta 3. taldeek honako herrialde hauek ordezkatzeko dituzte, hurrenez hurren: herrialde garatuak, garatzen ari diren herrialdeak eta gutxi garatuta dauden herrialdeak. Talde bakoitzak dituen elikagaien datuak hemendik atera ditugu: *Nekazaritzarako aurreikuspenak 2013-2022 aldian*. ELGE-FAO 2013.


4. taldeak ez du inolako herrialderik sinbolizatzen. Talde horri dagozkion elikagaiak Espainian alferrik botatzen ditugun elikagaien ehunekoak dira (% 18).

Prestaera:

- Jarri ikasleak lau taldetan, eta talde bakoitzari bere lan-fitxa eman. Ahal izanez gero, talde bakoitzak ez dezala ikusi beste taldeek zenbat elikagai dauzkaten.
- Irakur ditzatela argibideak. Komentatu eta azaldu, denek ondo uler dezaten zer egin behar duten. Denek argi dutenean, has daitezela lanean.
- Talde guztiek beren fitxa bete dutenean, fitxak bildu, eta gelan leku batean zintzilikatu.
- Talde bakoitzeko kide batek azal dezala zenbat elikagai zeuzkaten eta nola banatu dituzten.

Bazkalondoan:

- Ondorengo galderetan oinarrituz, denen artean komentatu:
 - Taldeen koadroak ikustean, zer da atentzioa eman dizuen aurreneko gauza?
 - Talde guztiek behar adina elikagai al zeukaten?
 - Talde batzuetan elikagaien bat behar baino gehiago al dago? Eta behar baino gutxiago?
 - Zein iruditzen zaizue orekatuena?
 - Bidezkoa iruditzen zaizue elikagaiak horrela banatzea?

- 
- Zuen ustez, zein herrialde edo zein kontinente ordezkatzzen du zuen taldeak?
 - Utzi ikasleei komentatzen. Bukaeran, azaldu taldeek zer adierazten duten. Zuzendu arreta 4. taldeari: Espainian alferrik botatzen diren elikagaiak adierazten ditu.
 - Harrigarria iruditzen al zaizue? Espero al zenuten?
 - Alferrik botatzen diren elikagaiak gehiago dira beste taldeek dauzkaten kopuruak baino. Hori zer iruditzen zaizue?
 - Ba al zenekiten hainbeste janari botatzen dela alferrik? Ikusten al duzue zenbat jende elikatu ahal izango litzatekeen janari horrekin?
 - Gogoetari bukaera emateko, jarri *Elikagaiak denontzat* posterra gelako leku batean, eta begiratu «1 kg sortzeko behar diren zerealak» atala:
Nabarmendu kilo bat haragi ekoizteko, zereal asko eta asko behar direla:
 - Ikusten al duzue zenbat zereal behar den abereak elikatzeko eta haragi kilo bat ekoizteko?
 - Begiratu bete dituzuen koadroak: ikusten al duzue zenbat haragi kontsumitzen dugun herrialde garatuetan?
 - Begiratu garatzen ari diren herrialdeak ordezkatzzen dituzten fitxak eta ikusi zerealak non dauden haien elikaduran: konturatzen al zarete zenbat zereal izango liratekeen jatekoak, hainbeste haragi kontsumituko ez bagenu?

